



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2020

TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

1. Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa –PTT 2020.....	2
2. Ekintzailtzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2020	4
3. Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak – CTP 2020	6
4. Euskadi Turismo Bonua	8
5. EAeko ostalaritza sektorerako laguntzak.....	10
6. Euskadiko turismo-sektorearentzako COVID-19 laguntzak.....	12
7. Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Saltoki-Bonua» programa.....	14
8. Hirigune, hiri merkataritzaren lankidetzeta, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen programa COVID-19aren aurrean. 2020	16
9. COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean, saltegiak modernizatzeko laguntzak.....	18
10. Merkataritzako Bulego Teknikoei zuzendutako laguntza-programa – 2020	19
11. "Covid-19a" Euskal Merkataritza-Sektorerako laguntza programa.....	21



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa –PTT 2020

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko apirilaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak 2020ko ekitaldirako arautzen eta iragartzen dituena (2020ko maiatzaren 20ko EHAA, 95. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko apirilaren 30ekoa

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 4koa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, 2020ko ekitaldian emandako laguntzen zerrenda jakitera ematen duena, 2019ko ekitaldirako lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak arautzen eta iragartzen dituen Aginduak finkatutako esparruan

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuentzako programa, erakunde horien helburuen eta/edo ahalmenen artean badago turismo-jarduera garatzea eta sustatzea, EAEren turismo-lehiakortasuna sustatzeko, itzulgarriak ez diren dirulaguntzak baliatuta honako hauen moduko proiektuak egiteko:

- a) Turismoko lurralde-proiektuak helmugen erakargarritasuna hobetzen dutenak.
- b) Berrikuntzaren bidez eta turismo jasangarria eta arduratsua garatuz, helmugen kalitatea eta lehiakortasuna hobetuko duten proiektuak:

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lurralde	Aurkeztuak	Artxibatuak	Onartuak	Aurkeztutako aurrekontua	Onartutako aurrekontua	Azken dirulaguntza
Araba	10	3	7	748.454,73 €	716.231,63 €	361.983,53 €
Gipuzkoa	15	2	13	1.462.369,41 €	1.283.757,89 €	595.259,78 €
Bizkaia	11	1	10	1.487.860,63 €	1.305.831,48 €	492.756,55 €
TOTAL	36	6	30	3.698.684,77 €	3.305.821,00 €	1.449.999,86 €

Deialdira 36 erakunde aurkeztu ziren, eta horietatik 2 artxibatu egin ziren, eta 4 ukatu egin ziren programaren baldintzak ez betetzeagatik. Azkenik, erakunde onuradunen kopurua 30ekoa izan da. Ondoren aipatutako turismo-produktuekin lotutako 97 jarduera garatzen lagundu da: gastronomia, kultura, kostaldea, natura, bilerak eta pizgarriak (MICE), familia-turismoa, esperientziala eta bestelako tipologiak



(Basque Mountains, City Breaks, Txakoliaren ibilbidea, etab). Era berean, jarduera horiek garatzeko eta kudeatzeko 33 lanpostu sortu/mantendu dira (5 gizonezko eta 28 emakumezko).

Bestalde, aipatu erakundeetatik 22ri laguntza eman zaio 28 langile kontratatuzko (7 gizonezko eta 21 emakumezko) haien eragin-eremuko enpresetan Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa.

Aurrekontu-betearazpena %100koa izan da. Kalkulatutako dirulaguntza teorikoaren gaineko programaren defizita 327,70 eurokoa izan da. Egindako hainbanaketa %99,977koa izan da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onartutako eskabide kopurua	30	30
Onartutako proiektu kopurua, produktu motaren arabera (gastronomia, bilerak (MICE), natura, kultura eta bestelakoak)	90	97
Sortu/mantendutako enplegua (zuzenean edo laguntza teknikoa)	35	33
Nº de destinos apoyados para la implementación de los programas	23	22
Nº de empresas formadas	700	346
Empleo creado/ mantenido	23	28



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekintzaitzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2020

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko apirilaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, turismo-enpresen sorkuntzari eta lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko 2020ko ekitaldirako laguntzak arautu eta horien deialdia egiten duena (2020ko ekainaren 5eko EHAA, 109. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko apirilaren 30ekoa

EBAZPENA, 2021eko otsailaren 1ekoa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita Turismoko enpresen sorkuntzari eta lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko programa arautzen duen Aginduak finkatutako esparruan 2020ko ekitaldian eman diren laguntzen enpresa onuradunen zerrenda.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua toki-garapenari lagunduko dioten turismo-negozioko berriak sortzen laguntzeko oinarriak ezartzea da, baita turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzera bideratutako jarduketak ere, guztia ere berrikuntza teknologikoaren babesarekin; halaber, haien kalitatea hobetu nahi da eta turismo jasangarriko eta eskuragarriko eredu baterantz bideratu, baldin eta diruz laguntzeko honako ildo hauetan tokirik badute:

- turismo-negozioko eredu berriak sortzea;
- turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

ILDOA	Lurralde	Aurkeztutak o eskaerak	Artxibatuak	Ukatuak, araudia ez betetzeagatik	Ukatuak, kredito faltagatik	Onetsiak
Ekintzaitzeta	Araba	6	2	2	0	2
	Bizkaia	15	3	4	1	7
	Gipuzkoa	13	0	5	3	5
	GUZTIRA	34	5	11	4	14
Enpresen lehiakortasuna hobetzea	Araba	14	1	1	0	12
	Bizkaia	65	6	14	1	44
	Gipuzkoa	62	6	19	7	30
	GUZTIRA	141	13	34	8	86
GUZTIRA	175	18	45	12	100	



ILDOA	Lurralde	Aurkeztutako inbertsioa	Onartutako inbertsioa	Emandako dirulaguntza
Ekintzailletza	Araba	237.323,79	109.370,31	27.336,27
	Bizkaia	1.645.753,02	608.360,87	111.088,68
	Gipuzkoa	3.104.201,71	1.149.679,75	61.575,05
	GUZTIRA	4.987.278,52	1.867.410,93	200.000,00
Enpresen lehiakortasuna hobetzea	Araba	357.475,52	282.750,10	65.456,89
	Bizkaia	1.830.408,47	880.709,73	213.455,26
	Gipuzkoa	1.916.390,68	707.396,56	173.057,83
	GUZTIRA	4.104.274,67	1.870.856,39	452.000,00
GUZTIRA	9.091.553,19	3.738.257,32	652.000,00	

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ekintzailletza eta ekimen berrien ezarpena bultzatzea:		
Diruz lagundutako enpresen kopurua	15	14
Sortu/mantendutako enplegua	24	57
Eragindako inbertsioa	1.000.000	1.867.411
Egungo turismo-enpresak eskarien baldintza berrietara egokitzen eta moldatzen laguntzea:		
Diruz lagundutako enpresen kopurua	86	86
Sortu/mantendutako enplegua	1.200	923
Eragindako inbertsioa	2.500.000	1.870.856



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak – CTP 2020

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko apirilaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Turismoa Merkaturatzeko eta Sustatzeko 2020. urteko laguntzak (TMS programa), eta horien deialdia iragartzen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko apirilaren 30ekoa (2020ko maiatzaren 13ko EHAA, 89. zk).

EBAZPENA, 2020ko azaroaren 2koa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko 2020. urteko laguntzen (TMS programa) zerrenda argitara emateko dena, 2020. urteko deialdia egin eta arautzen duen Aginduaren esparruan (2020ko azaroaren 10eko EHAA, 223. zk).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xede hauek ditu agindu honek: Euskadiko turismo-produktuak diseinatzen eta martxan jartzen, sustatzen eta merkaturatzen laguntzen duten proiektuen garapena sustatzeko laguntzen deialdia egitea eta laguntza horiek arautzea, eta, Euskadiren turismo-kokapena sendotzen laguntzen duten ekitaldiak bultzatzea.

Helburua

- Turismoko produktu lehiakorren sorrera sustatzea.
- Gure helmuga bereizten duten elementuak bultzatzea oinarrizko erreferentziatzko elementu gisa, Euskadi Basque Country marka turistikoa kokatzeko.

Ekintza

- EAEko enpresa turistikoei produktu turistiko eta esperientzia berriak sortzen nahiz merkaturatzen laguntzea, eta espiritu ekintzailea eta berrikuntzaren kultura sustatzea.
- Sektoreko elkarteek, fundazioek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek egindako produktu turistikoak eta esperientziak sustatzeko eta merkaturatzeko jarduketetan laguntzea.
- Fundazioek, elkarteek eta enpresek antolatutako kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiak sustatzen eta merkaturatzen laguntzea, horien garrantziagatik eta parte hartzen duen publikoaren garrantziagatik, bai eta komunikabideetan duten oihartzunarengatik ere, Euskadiko turismoaren irudia eta posizionamendua sendotzen eta ostatu-gauen kopurua areagotzen laguntzen baitute.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Eskaerak		Turismo-sektoreko enpresei turismo-produktu berriak garatzen eta merkaturatzen laguntzea		Turismoaren arloko enpresek eta elkarteek antolatutako ekitaldiak bultzatzea Euskadiren irudia eta turismo-kokapena sendotzen ez ezik ostatu-gauen kopurua handitzen ere laguntzen badute	
Aurkeztutakoak	Onartutakoak	Lagundutako proiektuen kopurua	Eragindako inbertsioa	Lagundutako ekitaldien kopurua	Eragindako inbertsio
120	70	59	1.465.604,57	11	768.079,23

Adierazi zeintzuk diren laguntza-programan lortutako emaitza onak, aurreikusitako datuekin alderatuta.

Gogoratu behar da 2019an laguntza-programaren azterketa bat egin zela, eta bertatik hainbat gomendio lortu zirela helburuak hobeto erdiesteko. Gomendio horiek kontuan hartu dira 2020ko deialdiko Agindua idazteko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua	41	70



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadi Turismo Bona

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko uztailaren 28koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautu eta 2020rako deitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-, sukaldaritza- eta ostalaritza-sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Turismo Bona» programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko uztailaren 28koa (2020ko urriaren 5eko EHAA, 196. zk.)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/10/2004050e.pdf>

AGINDUA, 2020ko azaroaren 3koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2020ko uztailaren 28ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-, sukaldaritza- eta ostalaritza-sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Turismo Bona» programa arautu eta 2020rako deitzen duena. (2020ko azaroaren 5eko EHAA, 219. zk.)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/11/2004697e.pdf>

AGINDUA, 2021eko martxoaren 2koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita 2020ko uztailaren 28ko Agindua, «Euskadi Turismo Bona» programa 2020rako arautu eta iragarri zuena, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-, jatetxe- eta ostalaritza-sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko. (2021eko martxoaren 11ko EHAA, 51. zk.)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/03/2101474e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programa berri bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-, sukaldaritza- eta ostalaritza-sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko eta suspertzeko jardura bideratzea helburu duena. Horretarako, ostalaritzan, sukaldaritzan eta turismo-intereseko jardueretan eta ostatuan deskontuak egiteko bonuak emango dira.

Programa kudeatzea lurralde historiko bakoitzeko Merkataritza-ganberei dagokie.

Ondasun, produktu eta zerbitzu turistikoak eta sukaldaritza- eta ostalaritza-ondasunak kontsumitzea diruz lagunduko da, deskontu-bonuak eskuratuz; horrela, erabiltzaileak prezioa murriztuko du ondasun, produktu eta zerbitzu horiek erostegatik.

Deskontu-bonuak atxikitako establezimendu eta enpresek berek aplikatuko dituzte turismo, sukaldaritza eta ostalaritzako ondasun, produktu eta zerbitzuak erosten diren unean.



Bi muga ezartzen dira erabiltzaileek deskontu-bonuak eskuratzeko:

- Gehienez 2 deskontu-bonu establezimendu edo enpresa bakoitzean, faktura bakoitzeko;
- Gehienez ere 40 euroko deskontua erabiltzaile bakoitzeko, NAN bidez identifikatu beharko dena.

Deskontu-bonuak hiru baliotan emango dira (5, 10 eta 20 euro), eta programari atxikitako establezimendu eta enpresetan onuradunek egindako erosketa-balioaren arabera aplikatuko dira (20, 40 eta 60 euro). 5 euroko deskontu-bonuak 20 euroko gutxieneko erosketetan erabili ahalko dira programari atxikitzen zaizkion ostalaritzako, sukaldaritzako eta interes turistikoko jardueretako establezimendu eta enpresetan. 10 euroko deskontu-bonuak 40 euroko gutxieneko erosketetan erabili ahalko dira programari atxikitzen zaizkion ostalaritzako, sukaldaritzako eta interes turistikoko establezimendu eta enpresetan. 20 euroko deskontu-bonuak 60 euroko gutxieneko erosketetan erabili ahalko dira programari atxikitzen zaizkion ostatu-establezimenduetan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Mugikortasun-murrizketak eta mugak direla-eta, Euskadi Turismo Bonua programa ezin izan zen 2020an abian jarri, eta, beraz, epea luzatzea erabaki zen, egoera pandemikoa hobetu arte.

2021eko martxoaren 11n, araua bigarrenenez aldatzeko agindua argitaratu zen, bi helbururekin:

- Enpresak eta establezimenduak programari atxikitzeko epe berri bat irekitzea 2021eko martxoaren 12tik 26ra.
- Bonuen indarraldia luzatzea, 2021eko apirilaren 13tik abenduaren 31ra.

Programak 2.000.000 euroko aurrekontu-zuzkidura du.

Guztira 250.000 deskontu-bonu emango dira, eta EAEko ganberak banatuko dituzte hiru lurralde historikoetan, bakoitzaren pisu demografikoaren arabera.

Lurralde-banaketa horren arabera, ehunekoak eta deskontu-bonuen kopurua honako hauek izango dira:

- Bizkaiko Lurralde Historikoa: % 52; 130.000 deskontu-bonu.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoa % 33; 82.500 deskontu-bonu.
- Arabako Lurralde Historikoa: % 15; 37.500 deskontu-bonu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako deskontu-bonuen kopurua	250.000	(*)

(*) Programa ez da oraindik bukatu.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAEko ostalaritza sektorerako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko azaroaren 13koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez EAEko ostalaritza-sektorerako laguntzak arautzen baitira eta deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko azaroaren 13koa.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/11/2004955e.pdf>

Eskaerak hurrenez-hurren emateko prozedura (lehia jarraitukoak). Banakako ebazpen suzesiboak.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzen agindu honen xedea da EAEn kokatutako ostalaritza-establezimenduen titular diren norberaren konturako langileak edo autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak babesteko eta zuzenean laguntza ekonomikoa emateko oinarriak ezartzea, baldin eta haien jarduerak bertan behera geratu baziren COVID-19k eragindako osasun-krisiarengatik dekretuz ezarritako itxieraren ondorioz, establezimenduei fisikoki irauten lagunduz, nahitaezko itxiera gainditu ondoren. Aurrekontu-zuzkidura 30.450.000 eurokoa da.

Pertsona edo erakunde onuradunari eman beharreko laguntzaren zenbatekoa eskaeraren xede den establezimenduan edo lantokian 2020ko urriaren 25ean alta-egoeran zeuden langileen kopuruaren arabera ezartzen da, honako taula honen arabera:

- 1-3 langileko establezimenduak: 3.000 euro
- 4-10 langileko establezimenduak: 3.500 euro
- 10 langiletik gorako establezimenduak: 4.000 euro

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

9.850 eskaera jaso dira. 2021eko apirilaren 19rako 8.883 espediente eman dira, 808 ezetsi dira, eta 160 geratu dira aztertzeke. Aurrekontuaren % 96,04 kontsumitu da.

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Total	
	Kopurua	Esp..Zk	Kopurua	Esp..Zk	Kopurua	Esp..Zk	Kopurua	Esp..Zk
Baietsita	3.875.000 €	1.195	15.509.500€	4.843	9.338.500 €	2.845	28.723.000€	8.883
Ezetsita	0 €	146	0 €	409	0 €	253	0 €	808
Ebatzi gabe		25		75		60		160
Guztira	3.875.000 €	1.366	15.509.500€	5.327	9.338.500 €	3.158	28.723.000€	9.851

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako establezimendu edo lantoki kopurua	9.850	(*)

(*) Programa ez da oraindik bukatu.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko turismo-sektorearentzako COVID-19 laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2020ko maiatzaren 19koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, euskal turismo-sektorearentzako COVID-19 laguntzak arautzen eta iragartzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko maiatzaren 19koa

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena, «Agindua, 2020ko maiatzaren 19koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, euskal turismo-sektorearentzako COVID-19 laguntzak arautzen eta iragartzen dituena».

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30ekoa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, zeinaren bidez Euskal Turismo-sektorearentzako covid-19 laguntza-eskaerak ebazten baitira.

EBAZPENA, 2021eko otsailaren 1ekoa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita turismoko enpresen sorkuntzari eta lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko programa arautzen duen aginduak finkatutako esparruan 2020ko ekitaldian eman diren laguntzen enpresa onuradunen zerrenda

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza zuzenera hau, erakunde onuradunak honako entitate motak kontratatutako gastu operatibo eta korrondiei laguntza emateko orientatuko da, KOVID-19 pandemia gainetoren testuinguru batean sortu den fakturazio nula edo oso txikia denean:

- A) Turismo-ostatuak
- B) Enpresa-zaharberritzea.
- C) Bitartekaritzako turismo-enpresak.
- D) Turismo-garraioko enpresak.
- E) Turismo aktiboa enpresak.
- F) Kongresuak antolatzen dituzten enpresa profesionalak (OPCak).
- G) Turismo-gidak



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

- 2021/04/08an lortutako emaitzak eta aurrekontua gauzatzea:

Lurraldea	Aurkeztutako eskabideak	Onartutako eskabideak	Ezetsitako eskabideak	Aurkeztutakoa	Onartutakoa	Ebatzitakoa
Araba	800	690	110	4.720.550,63	4.552.247,15	1.855.095,82
Bizkaia	3302	2640	662	20.736.331,93	19.709.997,07	7.113.624,64
Gipuzkoa	2198	1807	391	14.742.027,80	13.918.114,07	4.900.245,11
Guztira	6300	5137	1163	40.198.910,36	38.180.358,29	13.868.965,57

Jatorrian aurrekontua 7.500.000 €koa zen, eta horretarako 2.500 enpresaren eragina aurreikusten zen. Ondoren, aurrekontu hori bikoiztu egin zen. Hori da eta, emaitza horretatik aurrera emaitzak aurrera iritsi dira, zertxobait behera, espero den eragina (% 103), laguntza enpresen kopurua ulertzen du (5137 enpresa onuradunak 6.300, aurrera aurreikusitako 5.000 vs. Aldiz, kontuan hartzen badugu EGParen azken aldaketan islatutako aurreikuspena, 15.000.000 euroko zuzkidura ekonomikoa jasotzen zuena, 3.800 enpresaren aurreikuspena aurreikusten zen, hau da,% 137ko igoera).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru-laguntza jaso duten enpresen kopurua	3.800	5.137



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Saltoki-Bonua» programa

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko uztailaren 28koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautu eta deitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Saltoki-Bonua» programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Agindua, 2020ko uztailaren 28koa, -2020ko urriaren 5ko EHAA, 196. Zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/10/2004050e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

«Euskadi bono-comercio / Euskadi saltoki-bonua» programaren xede nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresaburu autonomoek, mikroenpresek eta enpresa txikiek gauzatutako txikizkako establezimenduetan ondasunen kontsumoa sustatzea da.

Honez gainera, hurrengo helburuak bete ditu programak:

- Norbere konturako langileei eta txikizkako merkataritza-sektoreko mikroenpresei eta enpresa txikiei indartzen laguntzea.
- Merkataritza-sektorearen oinarri diren herritarrei eta enpresa-sareari laguntzea, eskaria bultzatuta.
- Merkataritza-jarduera dinamizatzea, udalerrian eta eskualdean eragina sustatuta.
- Merkataritza-establezimenduen maniobra-funtsa hobetzea.
- COVID-19aren pandemia dela eta alarma-egoera deklaratzearen ondorioz merkataritza-enpresa jakin batzuen jarduera aldi baterako etetearen ondorio ekonomikoa arintzea.
- Herritarren kontsumo ahalmena handitzea. Horretarako, herritar bakoitzak gehienez ere 4 deskontu-bono batu ahal izan ditu, ahalik eta herritar gehiengana iristeko.

Kanpainari atxikitako txikizkako merkataritza-establezimenduetan ondasunak erosteko dirulaguntzak eman dira, bertan eskuragarri jarritako deskontu-bonuaren bidez. «Euskadi bono-comercio / Euskadi saltoki-bonua» bakoitza 10 euroko deskontu-bonua da, eta atxikitako establezimenduetan egindako 30 euroko edo gehiagoko erosketan aplikatu da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurrekontu-betearazpena: Ordainketa-kreditua: 3.700.000 euro

Aurrekontu exekutatua: 3.576.247,75 euro.



Programak kontsumo handia eragin du merkataritzaren sektorean eta kontsumitzaileen artean, izan ere, Covid-19aren pandemiak erosteko ahalmena murriztu zuen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Kontsumitutako bonuen kopurua	370.000	357.625



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hirigune, hiri merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen programa COVID-19aren aurrean. 2020

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko uztailaren 7koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, COVID-19aren testuinguruan, Hirigune Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako 2020ko laguntza-programarako arauak ezarri eta deialdia egiteko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

Agindua, 2020ko uztailaren 7koa, -2020ko uztailaren 20ko EHAA, 141. Zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/07/2002855a.shtml>

Laguntza emateko ebazpena: Ebazpena, 2021eko otsailaren 18koa, -2021eko otsailaren 26ko EHAA, 42. Zk. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/02/2101151a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da hiri-inguruneetan merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzea eta biziberrituko diren merkataritza-eremuen kokapena hobetzea.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen eta merkatarien elkarteen artean lankidetzaren egitura publiko-pribatuak sortzea bultzatu nahi da, udal-inguruneak hiri-ekonomiako gune gisa balioesteko zonako estrategiak garatzeko.

Hala ere, hasiera batean aurrekontu-partida bat aurreikusi zen udalen inbertsioetarako eta beste bat elkarteen jardueretarako. Pandemia dela eta, beharrezkotzat jo zen udalen partida erabiltzea bat-batean etorritako egoerari aurre egiteko eta saltokietako gastu arruntei aurre egiten laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurrekontu-betearazpena: Ordainketa-kreditua: 1.950.000 euro

Eskaerak:

- Eskaera egin duten elkarteen kopurua: 74 elkarte
- Proiektu kopurua: 443 proiektu.
- Sortutako inbertsioa: 1.802.310,09 euro

Emandako laguntzak:

- Diruz lagundutako elkarte kopurua: 68 elkarte
- Diruz lagun daitezkeen proiektuak: 395 proiektu.

- Dirulaguntzen zenbatekoa, guztira: 1.650.165,53 euro

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntzaren onuradun diren elkarteak	70	68



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean, saltegiak modernizatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko ekainaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko ekainaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez, COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean, Saltegiak modernizatzeko laguntza-programarako arauak ezarri eta 2020ko ekitaldirako deialdia egiten baita.

EBAZPENA, 2021eko otsailaren 22koa, Merkataritzako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2020ko ekitaldian Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2020ko ekainaren 30eko Aginduak -COVID-19aren aurrean, merkataritza-saltokiak modernizatzeko laguntza-programarako arauak ezarri eta 2020ko ekitaldirako deialdia egiten duena- ezarritako laguntzen onuradun diren enpresen zerrenda.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritzako saltegien modernizazioa sustatzea da, berrikuntzaren eta kudeaketa-tresnen eta azpiegituren hobekuntzaren bidez, kontuan hartuta, gainera, COVID-19aren ondorioz deklaraturako alarma-egoerak eragin duen aparteko egoera.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurrekontu-betearazpena: 1.203.103,88 €.

Guztira, 469 laguntza eman zaizkie merkataritza-establezimenduei, eta 9.394.983,48 euroko inbertsioa mobilizatu dute.

Dirulaguntzen programa honetara bideratutako aurrekontu-kreditu ia guztia agortzea lortu da.

Uste da merkataritza modernizatzeko inbertsioa bultzatzeko palanka bikaina dela, mobilizatutako inbertsioaren datu gordinak ikusita.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntzaren onuradun diren merkataritza-establezimenduen kopurua	800	469



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Merkataritzako Bulego Teknikoei zuzendutako laguntza-programa – 2020

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko uztailaren 14koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Merkataritzako Bulego Teknikoentzako 2020ko ekitaldirako laguntza-programa arautzen eta iragartzen duena, COVID-19ari aurre egiteko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko uztailaren 14koa (2020ko abuztuaren 3ko EHAARI, 151. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/08/2003126a.pdf>

Onuradunen ebazpena argitaratzeke.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea merkataritza-banaketaren sektoreari doako laguntza teknikoa ematea da, langile kualifikatuen bidez. Laguntza hauen onuradunak merkatarien elkarteak, federazioak edo agrupazioak dira, baita udalak edo udalek sustatutako garapen-erakundeak ere. Merkatarien elkarte, agrupazio eta federazioen kasuan, EAEko merkatarien elkarten erroldan inskribatuta egon behar dute.

Merkataritzako Bulego Teknikoen bidez, aholkularitza espezializatua eman nahi da, berrikuntzarekin, kalitatearekin eta teknologia berriekin lotutako prozesuak bultzatu, eta udal-mailan edo banaketa-katean lankidetzaz-estrategiak sustatu.

2020an, pandemiak sortutako inguruabar bereziengatik, bulegoek beren jarduera egokitu eta hasieran aurkeztutako proiektuak aldatu behar izan zituzten. Kasu gehienetan jarduera asko handitu zen, batez ere kontsulter erantzunez, eta lan esanguratsua eta oso garrantzitsua egin zuten Merkataritzari zuzendutako ezohiko programetan lagunduz, Covid-19 laguntzari eta bertako saltokietan kontsumitzeko pizgarri izan den Merkataritza Bonuei buruzko informazio zuzena eta eraginkorra emanaz.

Bai konfinamenduan, bai arintze-fasean, kontsulta ugari jaso zituzten Autonomia Erkidegoko osasun-larrialdi egoerarekin lotutako alderdi askori buruz: laguntzak, ordutegiak, edukierak, ABEEEak, itxierak, etab.

Lanaldi osorako urtebetean kontratatuta edukitzeak duen kostuaren % 86,7ra arte iritsi ahal izango da laguntzen zenbatekoa. Nolanahi ere, bulego bakoitzak gehienez jasoko duen dirulaguntza ez da 38.500 eurotik gorakoa izango.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurrekontu-betearazpena: Ordainketa-kreditua: 1.447.600 euro/Konpromiso-kreditua: 361.900 euro.

Diruz lagundutako bulegoak: 47ra arte

Emandako dirulaguntza, guztira: 1.778.801,74 euro.

- Araba: 8 bulego lagundu dira -- 246.400 euro.
- Gipuzkoa: 17 bulego lagundu dira -- 554.400 euro.
- Bizkaia: 21 bulego lagundu dira -- 646.800 euro.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako bulego kopurua	47	47



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

"Covid-19a" Euskal Merkataritza-Sektorerako laguntza programa

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko maiatzaren 19koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, euskal merkataritza-sektorerako «COVID-19» dirulaguntzak arautzen dituen eta 2020ko ekitaldirako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko maiatzaren 19koa (2020ko maiatzaren 29ko EHAA, 2092 zk.):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/05/2002092a.shtml>

Laguntza emateko ebazpena: iragarki-taulan argitaratze-data (2020ko abenduaren 24a):

https://www.euskadi.eus/resolucion_definitiva/resolucion-covid19-comercio/web01-tramite/es/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: Helburua da oinarriak ezartzea euskal txikizkako merkataritza zuzenean babesteko eta laguntza ekonomikoa eskaintzeko, batez ere norberaren kontura lan egiten duten pertsoneri edo autonomoei, mikroenpresei eta enpresa txikiei laguntzeko, COVID-19aren eragina murrizteko eta merkataritza-jarduera ahalik eta azkarren berpizten laguntzeko.

Kreditua handitu ondorengo zuzkidura: 9.900.000 euro

Diruz laguntzen diren kontzeptuak:

- a) Merkataritza-jarduera egiteko erabiltzen den lokal edo hiri-finka bakar baten **alokairu-gastuak**, 2020ko martxoaren 14etatik 2020ko abuztuaren 31ra arte.
- b) Merkataritza-jarduera egiteko erabiltzen den lokal edo hiri-finka erosteko **hipoteka-maileguaren edo mailegu pertsonalaren kuotak (amortizazioa + interesak)**, 2020ko martxoaren 14etatik 2020ko abuztuaren 31ra arte.
- c) **2020ko udaberri-udara sasoiko produktuen stocka erostearen gastua**, 2020ko martxoaren 14a baino lehenago erosi eta jaso bada.
- d) Ohiko gastu hauek zuzenean lotuta daude diruz lagundu behar den merkataritza-jarduerarekin:
 1. Energia-hornikuntzako gastuak, telekomunikabide-zerbitzuak (telefonoa, Internet) eta aseguruen primak.
 2. COVID-19ari lotutako dirulaguntzetarako aholkularitza eta kudeaketa zerbitzuak kontratatuzetik eratorritako gastuak txikizkako merkataritza-enpresetan, gehienez 150 €.



3. Merkataritza-jarduera babesteko eta dinamizatzeko jarduerak errazteko asmoz ondorengo berpizte eta berraktibazio faseetan, tokiko, eskualdeko, probintziako eta euskal merkataritza-elkarteetarako afiliazio-kostuak, 2020ko martxoaren 14 etatik 2020ko abuztuaren 31ra arte.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

	Aurkeztutako eskabideak	Onartutako eskaerak	Onartutako eskaeren %	Aurkeztutako inbertsioa	Onartutako inbertsioa	Dirulaguntza teorikoa
Araba	447	321	5,93%	3.547.145,26 €	2.754.399,03 €	845.958,03 €
Bizkaia	2825	1992	36,83%	20.045.009,84 €	17.303.837,08 €	5.184.870,63 €
Gipuzkoa	2137	1474	27,25%	20.289.785,43 €	16.992.087,75 €	3.798.277,06 €
GUZTIRA	5409	3787	70,01%	43.881.940,53 €	37.050.323,86 €	9.829.105,72 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako enpresen kopurua	2.500	3.787